

## BESTELAKO XEDAPENAK

### LAN ETA ENPLEGU SAILA

## 310

*EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 10ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez honako ebazpen honen huts-zuzenketa egiten baita: Ebazpena, 2022ko ekainaren 10ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita toki-erakundeek gazteak kontratatzeko laguntzen 2022ko ekitaldiko deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 Programaren esparruan.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.c) artikuluan xedatzen duenez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak maila bereko xedapen edo ekintza batez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira eta, horiek zuzentzearen ondorioz, agiriaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Horrelako hutsak atzeman dira honako ebazpen honetan: Ebazpena, 2022ko ekainaren 10ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita toki-erakundeek gazteak kontratatzeko laguntzen 2022ko ekitaldiko deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 Programaren esparruan (2022ko ekainaren 22ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 120. zk.). Horrenbestez, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

– 2022/2829 (12/3) orrialdean, 2.2 artikuluan, euskarazko bertsioan, hau dio:

«2.– Deialdi honen baitan diruz lagundutako kontratuek Europako Gizarte Funtsaren kofinantzaketa izan dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 Programaren esparruan.»

Baina hau esan behar du:

«2.– Deialdi honen baitan diruz lagundutako lan-kontratuek Europako Gizarte Funtsaren kofinantzaketa izan dezakete, Gazte Enplegurako 2014-2020 Programa Operatiboaren esparruan eta/edo Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 Programa Operatiboaren esparruan.»

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 10a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,  
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.